

## ANALISIA



## Frantziako migrazio politikaren benetako aurpegia



Mikel Garcia Idiakez  
@mikelgi

Zirku erromatarrean nola, hala altxatu du hatza gorantz Emmanuel Macron enperadoreak: Parisko balkoi batean zintzilik geratu zen umea erreskatatzeagatik famatu egin den Maliko Mamoudu Gassamaren egoera legezkatzea erabaki du. Umerik erreskatatu ez duten gainerako migratzaileak, ordea, lehoietara bota ditu, bere Gobernuak Immigrazio Legeari egindako erreforma gupidagabearen bidez.

Bagenekien lehenengo eta bigarren mailako migratzaileak daudela, jatorriaren, diruaren, arrazaren... arabera. Baina herritar-txartelak hain modu ziniko-propagandistiko-despotikoan banatzeak mezu harrigarria du atzean: "Super-heroia ez bazara, jai duzu, etorkin". Izan ere, Macronen erreformak haserre ditu giza-eskubideen aldeko erakundeak: besteak beste, delitu bilakatzen du mugak ilegalki gurutzatzea (Mamauduk berak egin moduan), paperik gabekoen kontrolak indartzen ditu eta babes eskaerak egiteko irizpideak gogortzen.

Presidentearen sari pozoitsuak agerian baino ez du utzi zein bidegabea den Frantziako -oro har, Europako- migrazio politika: laguntza behar zuen umearekin topo egin izan ez balu, eredu bihurtu den Mamaudu Gassama klandestinitatera, baz-

terkeriara eta ilegalitatera kondenatuta legoke, kanporatua izateko arrisku larrian.

### Eta bi egunera, ifrentzua

Harrabots handiarekin Gassamaren egoera legezkatu eta bi egunera, Gobernuak duen migrazio politika hobeto islatzen duen gertakaria ezagutu dugu: "Nire izena Martine Landry da, 73 urte daukat. Kartzelaratua izateko arriskua dut, adin txikiko bi atzerritarri laguntzeagatik". Hala mintzo da Amnesty Internationalen 15 urte daramatzen emakume frantziarra; Italiako mugatik gertu bizi da eta Frantziara iristen diren migratzaile gazteak laguntzen ditu. Horregatik, pasa den uztailean, Haurrentzako Babes Soziala eskatu zuten Gineako bi adin txikiko Italiako muga-postura itzularazi zituztela jakin zuenean, bertaratu eta Frantziako harreara etxe batera eraman zituen. Frantziako legediarentzat, "solidaritate delitua" da hori: atzerritar bati "modu ez legalean" herrialdean sartzen laguntzen dion pertsonari bost urteko espetxe-zigorra eta 30.000 euroko isuna ezartzen dio. "Solidaritate delitu" izenez ezagutzen dena atzera bota nahi izan zuen hainbat politikaririk Asanblea Nazionalean, baina orduko hartan, hatza beherantz okertu zuen Macronek: "Solidaritate delitua egokitu izan daiteke, baina ez ezabatua", agindu zuen.

## EKONOMIAREN TALAIAN

## Laugarren industria iraultza hemen dago



Juan Mari Arregi

Barakaldoko BECen joan den astean ospatu den 30. Makina-Erremintaren Biurtekoak -Euskal Herrian giltzarri den sektorea- ohartarazi digu jadanik iristen ari den laugarren industria iraultzaz eta bere eragin sozial eta laboral esanguratsuez. Atzean geratu dira XIX. mendeko lehen industria iraultzaren ondorioak, hala nola XX. mendean Euskal Herrian jasandako birmoldaketa larri eta basatiak. Industria digitala finkatu egin da eta bere adierazle nagusienetakoa da makina-erreminta.

Baina globalizazio ekonomikoak nolabaiteko dardara sortzen du, Europan roboten lehen lantegia eraiki baitute eta giza-enpleguari ekarriko dion galerari zaion beldurra berpiztu du. Robotikako konpainia garrantzitsuenetako batek, Yaskawa japoniarrak, orain arte Japonian eta Txinan produzitzen zuen, baina orain Europan, zehazki Eslovenian, roboten lantegia irekiko du kontinente horretan hedatzeko asmoz. Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundearen (ELGA) txosten baten arabera, 60 milioi langile robotengatik ordezkatuak izateko arriskuan izango dira datozen urteetan. Manufaktura-industria eta nekazaritza izango dira kaltetuenak.

Beraz, gobernuek ondo begiratu eta planifikatu beharko lukete hezkuntzaren, lan munduaren eta oro har jendartearen etorkizuna, laugarren industria iraultzaren eta robotikaren olatu hori kontuan edukita, milaka enplegu galdu baitaitezke. Ez da zientzia fikzioa. Kapitalismoak bere bidea egiten segitzen du, orain digitala zein robotetan oinarritua, eta etekinak pilatzen segitzeko bere mekanismoek bide bazterrean utziko dituzte beste behin milaka lagun. Hori da gobernuan daudeneke euren bizkarrean duten pisua.